

# Pour un Pont Saint Esprit sans voiture

**Depuis le 4 septembre 2017, le pont Saint Esprit, au cœur du centre-ville de Bayonne, est fermé à la circulation automobile, pour permettre la réalisation de travaux de rénovation et d'aménagement, dans le cadre du projet de Tram'bus. Au terme des travaux prévu fin juin 2018, Bizi! propose que le pont ne rouvre pas aux voitures et que seuls les bus, les vélos et les piétons puissent y circuler.**

Voilà près de trois mois que le pont Saint Esprit de Bayonne est fermé à la circulation automobile. Les conséquences positives sur la vie des quartiers Saint Esprit et du cœur de ville (Petit et Grand Bayonne) ont été immédiates. En effet, la suppression des voitures sur le pont, c'est moins de voitures dans les quartiers alentours. Et, moins de voitures, cela provoque immédiatement une nette amélioration de la qualité de vie des habitant-e-s de ces quartiers : moins de bruit, moins de pollution atmosphérique, des déplacements à pieds et à vélo plus sûrs, etc. Et cela profite à tout le monde de passage au centre-ville de Bayonne.

## Et si nous profitions des travaux pour valoriser notre centre-ville ?

En effet, si en juin 2018 nous décidons de ne pas rouvrir ce pont aux voitures, ni dans un sens ni dans l'autre, nous donnerions un signal fort, illustrant par la pratique, la volonté d'apaiser nos vies et nos villes en réduisant la place de la voiture.

Nous considérons par ailleurs, que cela ne réduira pas l'accès au centre-ville, au contraire. le tram-bus amènera des multi-modalités organisées et le PLUI une zone d'intensification urbaine. Dans ce contexte, le pont devient un objet central d'animation du centre s'il est ouvert et valorisé pour la convivialité et les usages variés. De multiples aménagements en bord de fleuve, nous montrent aujourd'hui le chemin à suivre, comme : Lyon (1), Nantes (2), Bordeaux (3) ... Cette dernière d'ailleurs a décidé d'expérimenter la fermeture du pont de pierre où circulent quotidiennement 15 000 véhicules motorisés. Il ressort de cette expérimentation réussie\*, que les automobilistes qui empruntaient le pont chaque jour, soit font le choix de passer par un autre itinéraire, soit optent pour d'autres moyens de transports (tram, bus, vélo, trottinette, marche). C'est bel et bien ce second choix qu'il faut encourager.

Souvenons-nous qu'en 2009, alors que les travaux de doublement de l'ancienne nationale 10 (RD810) s'achevaient entre Bayonne et Anglet, les élus ont fait le choix courageux de ne rouvrir qu'une seule voie de circulation aux voitures, et réservé l'autre au premier tronçon de voie de bus en site propre, sur 4,5 km. Aujourd'hui, personne ne conteste plus ce choix que Bizi! a soutenu activement à l'époque.

L'aggravation du dérèglement climatique à l'échelle planétaire (4) nous oblige à mener ici, localement, des actions fortes de réduction des émissions de gaz à effet de serre. Selon le plan climat de l'ex-ACBA, le transport représente plus de la moitié des émissions de GES de l'agglomération bayonnaise. Toute mesure visant à réduire la circulation automobile et encourageant les bus, le vélo et la marche, est bonne à prendre. La réouverture du Pont Saint Esprit aux seuls bus, piétons et cyclistes en fait partie.

**Bizi !**

1- <http://www.lettreducadre.fr/13042/espace-public-prendre-en-compte-la-maitrise-dusage/>

2- <http://www.iledenantes.com/fr/projets/295-berges.html>

3- Source : Fermeture du pont de pierre à Bordeaux : pas de grosses difficultés ce lundi matin

- <http://www.sudouest.fr/2017/09/04/fermeture-du-pont-de-pierre-a-bordeaux-quel-est-l-etat-du-trafic-ce-lundi-matin-3746103-2780.php>

4- [http://www.lemonde.fr/les-decodeurs/visuel/2016/11/03/climat-les-alarmants-niveaux-d-emissions-de-gaz-a-effet-de-serre\\_5024781\\_4355770.html](http://www.lemonde.fr/les-decodeurs/visuel/2016/11/03/climat-les-alarmants-niveaux-d-emissions-de-gaz-a-effet-de-serre_5024781_4355770.html)

et [http://www.lemonde.fr/planete/article/2017/11/13/le-cri-d-alarme-de-quinze-mille-scientifiques-sur-l-etat-de-la-planete\\_5214185\\_3244.html](http://www.lemonde.fr/planete/article/2017/11/13/le-cri-d-alarme-de-quinze-mille-scientifiques-sur-l-etat-de-la-planete_5214185_3244.html)

# Autorik gabeko Sant Izpiritu zubi baten alde

2017ko irailaren 4etik geroz, Sant Izpiritu zubia, Baionako hiriaren erdialdeko bihotzean, autoen zirkulazioari hetsia da, zubiaren arraberritzeko eta ber-antolaketa lanen egiteko Tram'bus proiektuaren baitan. 2018ko ekainean bukatuko diren obretarik landa, Bizi!k proposatzen du zubi hori ez dadin autoentzat berriz idekia izan, eta bakarrik autobusek, txirrindulek eta oinezkoek erabiltzeko parada ukан dezaten.

Bada orain kasik 3 hilabete Sant Izpiritu zubia hetsia dela autoen zirkulazioari. Sant Izpirituko auzoko eta hiriaren bihotzeko (Baiona Ttipi eta Handiko) bizian izan diren ondorio baikorrak berehalakoak izan dira. Alabainan, zubi gainean autorik ez izaiteak, ondoko auzoetarik kendu ditu hainbat auto. Eta auto gutiago izaiteak segidan ondorioztatzen ditu auzoetako biztanleentzat bizi kalitate mailan hobekuntzak: arrabots gutiago, satsudura gutiago, oinezko eta txirrindulazko mugikortasun segurragoak, etab. Eta hori probexugarri da Baionako hiriko erdialdean pasatzen den ororentzat.

## Eta lan horiek baliatzen baginitu gure hiriaren erdialdearen balioaren emendatzeko?

Alabainan, 2018ko ekainan erabakitzetan badugu Sant Izpiritu zubiaren ez idekitzea autoen zirkulazioari, izan dadin alde baterat edo besterat, keinu indartsu bat emana litaiketan praktikaren bidez argiki irudiztatuko lukeena gure bizi eta hirietan lasaitasuna ekartzeko xedea autoek duten tokia murriztuz.

Bestalde, konsideratzen dugu egoera berri horrek ez duela hiriaren erdialdera heltzeko moldea zailduko, alderantziz, tram-bus-ak eskainiko du garraio molde ezberdinaren arteko antolakuntza berri bat eta PLUI edo Urbanizazio Planoak hiriko biziagotze gune bat. Testu inguru horretan, zubia bilakatzen da hiriaren erdialdearen animatzeko elementu garrantzitsu bat, elkar bizitzarako eta erabilpen ezberdinendako idekia eta balorizatua bada. Gaur egun, ibai bazter ezberdinetan eginak izan diren antolaketa ezberdinak erakusten digute jarraitzeko den bidea: Lyon (1), Nantes (2), Bordale (3)... Azken honek, adibidez, erabaki du egunero 15 000 motordun ibilgailu errezebitzen dituen harrizko zubiaren hestearren saiatzea. Arrakastatsua izan den entsegu honetarik (\*) ateratzen da egunero zubi hori hartzen zuten auto erabiltzaileek edo beste bide bat hartzen dutela edo beste garraio molde batzuren hautua egiten dutela (tram, atobusa, txirrindula, trotineta, ibiltzea). Argi eta garbi da bigarren hautu hori behar dela sustatu.

Orroit gaiten, 2009an, 10 errepide nagusi ohian (RD810an) Baiona eta Angelu artean ziren bikoizte lanak bukatzen ari zirelarik, hautetsiek kuraiaz beteriko hautu bat egin zutela autoentzat bakarrik bide bat idekiz eta beste bidea autobusentzat bakarrik izanen zen bide gisa idekiz, hiriguneko lehen 4,5 km autobusentzat bakarrik utziz. Gaur egun, Bizi!k garaian molde aktiboan sustatu zuen hautu hori, nehork ez du gaitzesten.

Planeta mailan klima nahasmenduaren larritzea (4) dela eta, behartuak gira hemen, tokian bertan, berotegi efektuzko gasen isurketen murrizteko ekintza indartsuen hartzera. Garaian zen Euskal Kostalde–Aturri Hirigunearen Klima Planaren arabera, garraioak, Baionako Hirigunean diren Berotegi Efektuzko Gasen isurketen erdia baino gehiago ordezkatzen ditu. Ondorioz, autoaren erabilpena ttipitzen duen eta autobusaren, txirrindularen eta ibiltzearen hautua sustatzen duen neurri oro ongi etorria da. Sant Izpiritu zubiaren beridekitzea, bakarrik autobusentzat, oinezkoentzat eta txirrindularientzat neurri baikor horietariko bat da.

## Bizi!

- 1- [www.lettreducadre.fr/13042/espace-public-prendre-en-compte-la-maitrise-dusage/](http://www.lettreducadre.fr/13042/espace-public-prendre-en-compte-la-maitrise-dusage/)
- 2- [www.iledenantes.com/fr/projets/295-berges.html](http://www.iledenantes.com/fr/projets/295-berges.html)
- 3- Jatorria: Harrizko zubiaren hestea Bordalen: arazo gutti astelehen goiz honetan
  - [www.sudouest.fr/2017/09/04/fermeture-du-pont-de-pierre-a-bordeaux-quel-est-l-etat-du-trafic-ce-lundi-matin-3746103-2780.php](http://www.sudouest.fr/2017/09/04/fermeture-du-pont-de-pierre-a-bordeaux-quel-est-l-etat-du-trafic-ce-lundi-matin-3746103-2780.php)
- 4- [www.lemonde.fr/les-decodeurs/visuel/2016/11/03/climat-les-alarmants-niveaux-d-emissions-de-gaz-a-effet-de-serre\\_5024781\\_4355770.html](http://www.lemonde.fr/les-decodeurs/visuel/2016/11/03/climat-les-alarmants-niveaux-d-emissions-de-gaz-a-effet-de-serre_5024781_4355770.html)  
eta [www.lemonde.fr/planete/article/2017/11/13/le-cri-d-alarme-de-quinze-mille-scientifiques-sur-l-etat-de-la-planete\\_5214185\\_3244.html](http://www.lemonde.fr/planete/article/2017/11/13/le-cri-d-alarme-de-quinze-mille-scientifiques-sur-l-etat-de-la-planete_5214185_3244.html)